

Film bat aztertzeko izara, proposamen didaktikoa sortu aurretik erabiltzeko

Fitxa tekniko-artistikoa

Gai nagusia
eta azpigaiak

Pertsonaien analisisa
(gizakiak eta gizakituak)

Kontakizunaren egitura

Testuinguru historikoa
eta soziala

Sinopsia
eta gidariaren gakoak

Musika eta soinu-efektuak

Zinematografia eta alderdi teknikoak

Zinematografia-hizkuntza
eta esanahiak eraikitzea

Filmaren erakargarritasuna

Film bat aztertzeko izara, proposamen didaktikoa sortu aurretik erabiltzeko

Fitxa tekniko-artistikoa Zuzendaritza, urtea, gidoia, ekoizpena, iraupena... eta antzerako datuez gain, hizkuntza(k) eta azpitoluak, non ikusiko den (ikus-entzuneko plataforma edota zinema aretoa...) eta adin sailkapena (eduki desegokiak edo mugak) zehaztu beharko lirateke. Horrez gain, ea film komertziala den (kontsumo/entretanimendurako), artistikoa, komunikatiboa (salaketa, dokumental itxurakoa...)	Gai nagusia eta azpigaiak Genero eta azpigenero zinematografikoa, lehen mailako gaiak, zeharka edo puntualki agertzen diren gai interesgarriak.	Pertsonaien analisisa (gizakiak eta gizakituak) Alderdi fisikoak, psikologikoak eta gaitasun aniztasunak. Matrize soziokulturalari lotutako alderdiak (adina, etnia, klase soziala/lan kultura, generoa; leku eta elkarte atxikipena).	Kontakizunaren egitura Denbora eta espazioak. Erritmoak eta denbora/leku jauziak. Kode hermeneutikoa (filma ikusten segitzea bultzatzen duena: enigmak, susmoak, suspenseak, ezustek...).	Testuinguru historikoa eta soziala Filma grabatu zeneko une historikoa eta soziala. Filmak islatzen duen une/garai historikoa eta soziala. Zein ikuspegi ideologikotan kokatzen den.
	Sinopsia eta gidoiaren gakoak Gidoiaren literatura-kalitatea. Kalitate teknikoa. Denotazio eta konnotazioak, gako-une eta egoerak, birak...	Kode sinbolikoak ("zintzoa/gaiztoa", "heroia/doilorra", "aberats/txiro"...). Nola asetzen dituzten giza-beharrak (bizi-iraupena, babesa, afektua, aisia, partaidetza, ezagumena, identifikazioak, askatasuna, sortzea).	Musika eta soinu-efektuak Soinu-bandaren garrantzia. Abestien betekizuna. Soinu-efektu deigarriak edo narrazioan garrantzizkoak...	Adin, genero, etnia eta klase sozial/lan-kulturan duen posizionamendu nagusia (adinkeria, matxismoa, homofobia, transfobia, kolonialismoa, arrazakeria, klasismoa... nolabait antzematen ote den).
Zinematografia eta alderdi teknikoak Lan zinematografikoa baloratzea, animazioaren kalitatea, ekintza-efektuak... Antzezpenaren kalitatea eta girotze soziokulturala, historikoa. Argiteria, planoak, kamera mugimenduak, iraungipenak, laukiratzeak...	Zinematografia-hizkuntza eta esanahiak eraikitzea Hizkuntza- eta zinema- adierazpidearen konplexutasuna. Zinema-kodeak. Kode semantikoak (elkarrizketak, janzkera, keinuak, mugimenduak...). Figura filmikoak: metaforak, alegoriak, hiperboleak, pertsonifikazioak, elipsiak, hiperbatonak (<i>flash-back/flash-forward</i>)... Esanahiak eraikitzeko konplexutasuna eta aniztasuna.	Filmaren erakargarritasuna Ikasleekin lotutako balorazio orokorra: konplexutasuna eta aniztasuna; hurbiltasuna, identifikazioak eta urruntasunak; eragin ditzakeen hausnarketak eta pentsamendu kritikoa.		

Irakasleentzako oharrak eta erlazionatutako iturriak

Izara honen ideia

Normalean, film bat ikusi eta jasotzen ditugun inpresio orokorretan oinarritzen gara film hori ikasgelan ikusteko proposamen didaktikoa pentsatzen dugunean.

Idea da inpresio horietatik haratago jotzea, filma hobeto ezagutzea (bai alderdi narratiboetan, bai alderdi teknikoetan, proposamen didaktikoak ikasleen ikus-entzunezko kultura modu kritikoan lantzen eta zabaltzen lagun dezan.

Alderdi soziokulturalak

Alderdi hauek maiz oharkabea pasatzen zaizkigu barneratuak izaten ditugulako. Esaterako, film askok unibertsaltzat jotzen diren balioak transmititzen dituzte, baina berez, balio horiek etnozentrikoak edo klasistak dira. Edo maitasunaren eta giza-harremanen eredu matxistak normalizatzen dituzte.

Proposatzen da analisia matrize soziokulturalaren kontzeptuan (Encina et al, 2019) eta Max-Neef et al.-en (2008) giza-behar eta asebetetzailetan sostengatzea.

Barthes-en kodeak

Roland Barthes-en kodeak narrazio edo istorioen esanahi-kodeak dira eta lagungarriak izan daitezke filmen narratiba aztertzeko: kode hermeneutikoa, semantikoa, proairetikoa, sinbolikoa eta kulturala.

Kode hauek erraz uler daitezke adibidez, Edgar-Hunt et al.-en liburuan (2010) gai honetaz duen atala irakurritz.

Zinematografia-hizkuntza

Dios Diz-en arabera (2001), zinematografia-hizkuntzan, planoak, eszenak eta sekuentziak zinemaren sustantiboak eta adjektiboak dira; planoak litzateke diskurtso zinematografikoaren unitate minimoa; kamara-mugimendua, aldiz, aditza; iraungipenak, gortinak, kateak... puntuazio-markak. Muntaia zinemaren sintaxia litzateke.

Zinemaren semiotika osoa planteatzen da (Edgar-Hunt et al., 2010): narrazioa, testuartekotasuna, irudiak eta zeinuen interpretazioa, esanahiak eraikitzea...

Alderdi teknikoak

Zinemaren alderdi teknikoenetan aditu izan gabe ere, alderdi tekniko batzuk ezagutzeak zinemaz gehiago gozatzen lagunduko digu.

Gure proposamen didaktikoetan, alderdi teknikoei lotutako gauzatxoak joan gaitezke txertatzen. Esaterako, film bat ekoizteko beharrezkoak diren askotariko lanbideak lantzen has gaitezke.

Esanahiak eraikitzea

Proposatutako elementu bakoitza banandurik analizatzea ez da egokia. Film bakoitzak alderdi soziokulturalak, historikoak, estetikoak, etikoak eta teknikoak elkarloturik ditu, eta bakoitza banan-banan aztertzea proposatzen bada ere, esanahiak eraikitzeko banaka, taldeka eta kolektiboki integratzen dira.

Gomendagarria da esanahiak kritikoki eraikitzeari buruz sakontzea (Cassany, 2005) eta eraikitzen diren esanahien aniztasun handia ulertzea (Martín-Barbero, 2017).

Izara sortzeko erabilitako iturriak eta erreferentziak

- Cassany, D. (2005). Los significados de la comprensión crítica. *Lectura y Vida*, 26(3), 32-45. <http://hdl.handle.net/10230/22468>
- Dios-Diz, M. (2001). *Cine para convivir*. Ed. Toxosoutos, Seminario Galego de Educación para a Paz.
- Edgar-Hunt, R., Marland, J. eta Rawle, S. (2010). *El lenguaje cinematográfico*. Parramón Audiovisual.
- Encina, J., Ezeiza, A. eta Delgado, N. (2019). Diversidad lingüística y matriz sociocultural. In A. Ezeiza eta J. Encina (koord.), *Trabajando la lengua desde una perspectiva dialéctica* (87-124. orr.). ISM.
- Martín-Barbero, J. (2017). Los inesperados efectos de un escalofrío visual. Entre mirar y ver. In J. Martín-Barbero eta S. C. Berkin, *Ver con los otros. Comunicación intercultural* (15-31. orr.). Fondo de Cultura Económica.
- Martínez-Salanova, E. (d. g.). Analizar una película (web). <https://educomunicacion.es/cineyeducacion/analizarpelicula.htm>
- Max-Neef, M., Elizalde, A. eta Hoppenhayn, M. (2008). Desarrollo a escala humana. *Cuchará' y paso atrás'*, 19, 31-40. <https://ilusionismosocial.org/mod/resource/view.php?id=167>
- Vocabulari escolar del cinema <https://vocabularydecinema.wordpress.com/>

Nola erreferentziatu material hau?

Ezeiza, A. eta Encina, J. (2024). *Film bat aztertzeko izara, proposamen didaktikoa sortu aurretik analizatzeko*. ISM-UPV/EHU.

Hemendik hartua: <https://ehu.eus/ism/zinema>

Izara hau [Smartly Designed @wiktoria-grzybowska-ren](#) Canva-ko txantilo batean oinarritu da

Sakontzeko zenbait iturri

- Ambrós Pallarès, A., eta Breu Pañella, R. (2011). *El cine en la escuela: Propuestas didácticas de películas para primaria y secundaria*. Graó.
- Bergala, A. (2007). *La hipótesis del cine. Pequeño tratado sobre la transmisión del cine en la escuela y fuera de ella*. Laertes.
- Cantillo Valero, C. (2015). Del cuento al cine de animación: Semiología de una narrativa digital. *Revista de la SEECI*, 38, 133-145.
<http://dx.doi.org/10.15198/seeci.2015.38.115-140>
- Chacón-Gordillo, P. (2011). *¿Cómo interpretan los niños y niñas de educación infantil las series y películas de animación y los videojuegos? Un análisis a través del dibujo* [Doktorego Tesia]. Universidad de Granada. Granada. <http://hdl.handle.net/10481/18411>
- Díaz García, M. (2022). Un análisis de los estereotipos de género: Villanos y villanas en las películas disney. In R. M. Rabet Temsamani eta M. V. Quirosa García (koord.), ODS y educación inclusiva en la educación superior: experiencias y propuestas transdisciplinares de innovación docente (527-548. orr.). Dykinson. <https://www.dykinson.com/libros/ods-y-educacion-inclusiva-en-la-educacion-superior-experiencias-y-propuestas-transdisciplinares-de-innovacion-docente/9788411224635/>
- European Commision (2020). *Europe's Media in the Digital Decade: An Action Plan to Support Recovery and Transformation* [2020ko abenduaren 3ko komunikazioa]. <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/HTML/?uri=CELEX:52020DC0784&from=EN>
- Kuzmanich, D. (2008). *Cartilla de narrativa audiovisual*. Ministerio de Cultura, Gobierno de Colombia.
[https://oibc.oei.es/uploads/attachments/470/Cartilla de narrativa audiovisual.pdf](https://oibc.oei.es/uploads/attachments/470/Cartilla%20de%20narrativa%20audiovisual.pdf)
- Lara, F., Ruiz, M. eta Tarín, M. (2019). *Cine y Educación. Documento marco para el proyecto pedagógico impulsado por la Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas de España*. Academia de las Artes y las Ciencias Cinematográficas de España
<https://www.academiadecine.com/wp-content/uploads/2019/03/Cine-y-Educacio%CC%81n.pdf>
- Martínez-Salanova-Sánchez, E. (2009). Medios de comunicación y encuentro de culturas: Propuesta para la convivencia. *Comunicar*, 36(32), 223-230. <https://doi.org/10.3916/c32-2009-03-004>
- Morales Romo, N., Morales Romo, B. eta Hernández-Serrano M. J. (2023). Educomunicación y cine: una estrategia didáctica para fomentar la igualdad de género desde las aulas. *IgualdadES*, 8, 43-78. <https://doi.org/10.18042/cepc/lgdES.8.02>
- Shamash, S. (2022). A decolonising approach to genre cinema studies. *Film Education Journal*, 5(1), 41-54.
<https://doi.org/10.14324/fej.05.1.05>